

# Landareek eta arrain kontserbek osatuko dute azokako eskaintza

**Ekonomia** » 90 postu egongo dira aurten Zelaiaren bueltan, eta eskualdeko 180 buru plazaratuko dira; hamar ganaduzalek parte hartuko dute Blonda txapelketan.

## EIDER MUGARTEGI

Lea-Artibai Amankomunazgoko lehendakari Jesus Mari Sarasuak, Markina-Xemeingo alkateorde Iñigo Ansolak, Euskal Herriko Blonda Akitania Federazioa (EBAF) koordinatzaile Gorka Elortzak eta Bizkaiko Blonda Elkarteko Angel Arriolak zapatuan Markina-Xemeinen ospatuko den Urriko Azoka Nagusia aurkeztu zuten atzo goizean. Azokaren barruan, Euskadiko Blonda behien XIV. Txapelketa egongo da aurten.

Hiru gune nagusitan banatuko da azoka: Zelaia, frontoi buelta eta udaletxe osteko aparkalekua. Zelaia-aren bueltan, lehiaketa eta erakusketan parte hartuko duten 90 postu egongo dira, eta eurretan, urtero legez, ortuari, gazta, gozogintza eta ogi, ahate produktu, ezti, ibarrakoa piper, sagardo, txakolin, kontserbabegetal, mermelada, haragi produktu, eta artisautzako produktuak aurkitu ahalko dira. Horretaz gainera, aurten, estreinako, arrain kontserben ekoizle bi eta landara eta loreen hiru mindegia egongo dira.

## Abere asko

Frontoi bueltan, nekazal tresnen azken berrikuntzak egongo dira ikusgai, eta udaletxe atzeko aparkalekuan kokatuko da eskualdeko abereen erakusketa.

Abereen parte-hartzeari dagokionez, aurrekontu falta dela eta, murrizketa batzuk egin dituzten arren, «parte-hartze handia» egongo da. Eskualdeko 180 abere buru plazaratuko dira zapatuan. Euren artean okelarako behiak, ar-



Gorka Elortza, Angel Arriola, Jesus Mari Sarasua eta Iñigo Ansoa, atzoko prentsaurrekoan. EIDER MUGARTEGI

## IzARBIDEANEK POSTUA IZANGO DU

**Gizartea** » Elkarteko neska-mutilek egiten dituzten eskulanak erakutsi eta salduko dituzte, baita gozokiak ere.

## E. MUGARTEGI

IzARBIDEANEK, adimen urritasuna duten ume eta gazteen elkarrekin, postua edukiko du aurten Urriko Azoka Nagusian. Elkarteko neska-mutilek egiten dituzten eskulanak erakutsi eta salduko dituzte.

Hainbat lan egin dute IzARBIDEANEK neska-mutilek azokarako eskulanak prestatzen. Begiraleekin eta Arte Eskolan egin dituzte artelanak Tere Bringasen laguntzagaz, baita topagunean ere. Zapatuan, artisautsaren postu batean egongo dira, horiek lan guztiak bistantzen dituztela.

«Projektu berri bat egin nahi izan dugu IzARBIDEANEK egiten di-



IzARBIDEANEK elkarteko neska-mutilek batzuk, Tere Bringasegatz, Arte Eskolan.

ren lanak erakusteko. Kanporatzen nahi izan dugu egiten duguna», azaldu du IzARBIDEANEK elkarteko lehendakari Luis Egurrolak. Elkartek hainbat ekimen egiten ditu integrazioarako bidean: «Herriko beste taldeekin elkarlana,

esate baterako, eta azokako postuak ere helburu bera dauka».

Eskulanez gainera, janaria ere edukiko dute postuan: sukalde tailerlean prestatu dituzten gozokiak eta sortu duten errezeta berezia, esate baterako.

## » EGITARUA

- **10:00.** Azoka zabalduko da eta Blond Akitaniako behien Euskadiko XIV. Lehiaketa hasiko da.
- **11:00-15:00.** Urmetzako jolasak, frontoi bueltan.
- **Egurdian.** Herriko trikitilari taldeak kaleak alaituko ditu.
- **12:30.** Bihurri aizkolarien erakus-taldia Zelaian.
- **13:30.** Euskadiko Blond Akitania Lehiaketaren sari banaketa.

diak eta zaldiak. Postetxearen aurreko zelaian, berriz, eskualdeko etxabereak batuko dira: asto, pony, hegazti, txerri, ahuntz, idi eta ardiak, besteak beste.

Gune berean izango da ere Blonda behien Euskadiko Txapelketa. Hamar ganaduzalek parte hartuko dute aurten, 115 buruzagaz. Bizkaiko parte-hartzaileak lau dira: Arrietako Iturbe Anaia, Elorrioko Joseba Beitia, eta Markina-Xemeingo Angel Arriola eta Itziar Uruburu. Gipuzkoako ganaduzaleak, berriz, Aretxabaletako Jesus Kortabarria, Azpeitiako Antonio Olaizola, Jose Miguel Esnaola eta Imanol Lazkano, Getariako Juan Antonio Aranguren eta Orioko Jose Angel Zendoia izango dira.

Lehiaketa hamazazpi ataletan banatuko da, eta, horretaz gainera, beste atal berezi batzuk egongo dira. Hori dela eta, ohiko sailen sariak momentuan emango dituzte eta sail berezien sariak amaieran. Epailak bi izango dira: Iparraldeko epaile bat eta Landetakoak.

Enkante ere egongo da. Bertan hamabi buru egongo dira. «Interes handia dago, eta Galizia eta Madriletik etortzeko da jendea», azaldu du Gorka Elortzak.

## Antolakuntza

Urtero «azokara joaten den jende piloak ikusita», garraio publikoa erabiltzea gomendatu dute antolatzaileek. Hala ere, zortzi laguneko talde bat zirkulazioa bideratzen ibiliko dela jakitera eman dute.

Bestalde, udaletxe atzeko aparkalekua azokarako erabiliko denez, beste gune batzuk egongo dira autoa uzteko: Lea-Artibai Ikastetxea, Xemein osteko aparkalekua eta Bekobenta Eskolako, esate baterako. Horretaz gainera, eguraldi ona eginez gero, Urazkaren lur saila ere zabalduko dutela azaldu dute antolatzaileek.

Lea-Artibai eta Mutrikuko HITZAN jarri eta Busturialdeko Hitzan DOAN agertuko da

HITZAK Bizkaian 33.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
publilea@lea-artibaialdeko hitza.info / Tel.: 94-616 82 02

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA